

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2007/2008 denboraldia

## 22 ZK.DUN ZIRKULARRA

### EUSKADIKO FEDERAKUNDEAREN XIII. EMAKUMEZKO KOPA

Oraingo denboraldiko Lehiaketa Planak ezarritakoarekin batean, Euskadiko Futbol Federakundeak honako lehiaketa antolatuko du, ondorengo arauetara jarraiki :

#### 1.- PARTE HARTUKO DUTEN KLUBAK

Añorga, Athletic "B", Barakaldo, Eibartarrak, Gure Txokoa, Oiartzun, San Ignacio eta Zarautz.

#### 2. LEHIAKETA SISTEMA

Fase bitan egingo da :

##### 1. fasea

Lehiaketa honetarako 8 taldek izena eman dutenez gero, egokiago ematen du banaketa lau taldeko bi multzoetan egitea.

Hortaz, itzuli bakarreko liga sistemaren arabera egingo da. Multzo bakoitzeko txapelduna sailkatuko da finalerako.

##### Finala

Multzo bakoitzeko irabazleek parte hartuko dute, eta finalera heldutako talde bietako baten zelaian egingo da, zozketa bitartez.

.../...



- 2 -

### **3.- BERDINKETAK**

EFFren Araudi Orokorrak ezarritako moduan desegingo dira berdinketak.

Partidua amaituta, emaitza zeinahi dela ere, penaltiak jaurtiko dira talde bakoitzeko bost derrigorrez, harik eta talde bietako bat irabazle gertatzen den arte. Emaitza hori aintzakotzat hartuko da sailkapen orokorrean izan datezkeen berdinketak desegiteko azken tresna moduan.

Finala partiduan berdinketa izan esker, penalti puntutik jaurtiketa serieak egingo dira.

### **4.- DATAK**

1. fasea : apirilaren 27, maiatzak 4 eta 11

Finala : maiatzak 17

### **5.- ARBITROAK**

Erregional Goreneko arbitroak hautatuko dira partiduak zuzentzeko, eta partidua jokatzeko den lurraldeko federazioko kide izan beharko dute.

Ordainagiria Liga txapelketakoaren zenbateko berekoa izango da.

### **6.- PARTIDEN ORDUTEGIAK**

Ordutegia partida jokatu baino astebete lehenago jakinaraziko diote klubek Euskadiko Futbol Federakundeari. ( Tel. 94- 4.73.19.00 - Fax 94-473.22.21 )


Partidak larunbat arratsaldera aurreratu ahalko dituzte talde antolatzaileek, 15,30tik aurrera, aurkariaren oniritzia izan gabe ere.

Honetaz gain, ordu epea ezartzen da partiduak hasteko, hau da goizeko 10.30tik 13.00 tara eta arratsaldeko 15.30tik 18.30 ra. Kluben arteko akordioarekin, epe honetaik kanpo hasiko dira partiduak.

### **7.- GARAIKURRA**

Euskadiko Federakundearen Kopa, talde irabazlearentzat eta irabazleordearentzat.

.../...



- 3 -

## **8.- DIZIPLINA BATZORDEA**

Partidak amaituta, euskal federazioari helaraziko zaizkio arbitroaren aktak, Diziiplina Batzordeak epaia plazara eta helaraz dezan, halakorik behar izanez gero.

Eta horren berri ematen diegu parte hartuko duten taldeei, lurraldeetako federazioei eta Euskadiko Arbitroen Batzordeari, behar duen orok jakin, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbon, 2008eko apirilaren 16an

**EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA**

**IDAZKARI NAGUSIA**